

KANALAK

Kanalen bidez, gure proiektua, inguruko herriei (itsasadarraren ezkerrekoa) ailegatzea lortuko dugu. Hainbat kanal desberdin bereiz ditzakegu:

KANAL MOTAK:

1. KOMUNIKAZIO KANALAK ETA BANAKETA KANALAK

Hainbat marketing estrategia erabiliko ditugu gure bezeroei hurbiltzeko.

Gure estrategia nabarmenena interneten bidez izango da:

- Facebook: <https://www.facebook.com/profile.php?id=100014536841152>
- Instagram: www.instagram.com/sestinnova/
- Twitter: <https://twitter.com/sestinnova>
- Web orria: <http://sestinnova.wixsite.com>

Hala ere, herritarrei zuzen-zuzenean hurbiltzeko gutunak bidaliko ditugu eta herritik hainbat kartel jarriko ditugu, bezeroak erakartzeko asmoarekin:

-Kartela:



-Herritarrentzako gutuna (crowdfunding-a publizitzeko):

Sestaoko herritarrei:

Sestinnova enpresa berriaren kideak gara, eta gutun honen bidez, gure proiektua zuei erakustea dugu egitasmo. Hala, bertan parte hartzeko egin ditzakezuen aportazioak nola egin adieraziko dizkizuegu, baita hauek betetzeko urratsak ere.

Gure proiektuaren helburu nagusia Sestaoko turismoa, kultura eta kirola sustatzea zein garatzea da. Horretarako, Labe Garaietako museoa berriztekotan gaude eta kooperatiboa sortuko dugu, bai Gallartako museoaren laguntzarekin, eta Sestaoko udalaren nahiz zuen, herritarren, kolaborazioarekin. Kirola garatu nahian, Done Jakue bidea egiten duten erromesentzat aterpetxea sortuko dugu, “La Benedicta” aldean. Horrez gain, alde batetik Paddle Surf eta piragua ikastaroak eskainiko ditugu Nerbioi ibaian eta bestetik, Labe Garaietako museoaren puntu garaienetik lurreraino tirolina bat sortuko dugu.

Proiektu honetan parte hartzeko nahia izanez gero, gure webgunean sar zaitezke. Bertan, gure ekintza guztiei buruzko informazio sakonagoa aurkituko duzue.

www.sestinnova.wixsite.com eta crowdfunding atalean klikatu ondoren gure proiekturako dohaintza egin ahal izango duzue eta hainbat beherapen eskuratzeko aukera izango duzue baita bazkide bihurtzeko aukera ere.

*Mila esker zuen arretagatik
Agur bero bat.*

2. SALMENTA KANALAK

Zerbitzu guztietarako sarrerak online eta museoan bertan (harrera lekuan edo telefonoz) erosteko aukera izango dute bezeroek.

Online ordaintzekotan, ordain- agiria, sarrera erosteko erabili duen gmailera bidaliko dugu.

FASEAK:

1. PERTZEPZIOA

Hasieran ez dugu espero etekin handia lortzea. Geroago, publizitatea eta sare sozialei esker, gure proiektua zabaltzea lortuko dugu. Denborarekin, etekin nahikoa eskuratuko dugu gure jarduerak, establezimenduak eta antzinakotasunak berrizteko eta hobetzeko. Turismoa, kirola eta kultura Sestaoko biztanleen artean sustatzea espero dugu. Gainera, denborarekin inguruko herrietan, gure proiektuaren berri izango dute eta beste leku batzuetako bezeroak etortzea lortuko dugu.

2. EBALUAZIOA

Kalitatearen aldetik, profesionalak kontratatuko ditugu tirolina egiteko, gunea berrizteko eta aterpetxea eraikitzeke, gainera, primerako materialak erabiliko ditugu gure instalazioen segurtasuna ahalik eta handiagoa izateko. Horretaz gain, prestatutako ekintzetan, pertsona kualifikatuak kontratatuko ditugu, egon ahal diren edozein arazoei aurre egin ahal izateko.

3. EROSKETA

- **CROWDFONDING:** Herritarren dohaintza txikiak jasotzea proiektua finantziatzeko. Hauek beherapenak jasoko dituzte gure museoan eta gure zerbitzu guztietan (tirolina, aterpetxe, uretako kirolak...)
- **TABERNA ETA DENDEN APORTAZIOA:** 2 gunetan bereiziko ditugu, gunehurbilekoek 100€ eta bigarren gunekoek; 50€ emango dizkigute.
- **ICO, BANKUAK...** : ICO maileguak eskatuko ditugu, banku ezberdinen artean alderatuz.

- **SESTAOKO UDALA:** Sestaoko udalak inbertsio bat egingo du gure helburua herria hobetzekoa baita. Batez ere, babesak eta baimenak.

4. ENTREGA

Museorako eta tirolinarako txartelak, bai tokian bertan (harrera-lekuan), bai online erosteko aukera izango dute gure bezeroek eta ur-kirolak egiteko erreserbak ere tokian bertan edo online erreserbatzeko aukera izango dute.